

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS Bidea

- 1 - Zerek erakusten dauku udaberri dela?
- 2 - Udaberria hasten delarik zer erakusten dauku?
- 3 - Edazlaririk ger erakusten dauku?



UDABERRIARI BURUZ \*

Aroa ari zaigu hobekitzen, hotz borthitzak ihes eginik, iduriz, heldu den urthe artio. Agian ba. Iguzkia ere samintzen zauku, bere piruak<sup>1</sup> beroxkoak dira.

Lertsunak lerro lerro iragan dire garrasika ipharraalde-  
rat, udako bazka lekuatarat. Gutxi egunen buruko hemen ditugu ainharak, hego aldeko eremu urrunduetarik yinak, beren ohandzeak eraikitzeke hegatsetan; hok ere hazkurriaren bilha, airian diren ulitxa guziak iresteko, mokoia zabaldurik heien ondotik, eta geroxago eremateko beren umeeri behar duten yanaria. Mamutxak errepizten dira alderdi guzietan. Zuhaitzak ozitzen hasiak, heldu den ilhabetean galkatzeko aldaska ederrez beren abarrak, eta berantago emaitzeko itzal-  
-oxoaren dohaina, unhatueren<sup>2</sup> eta izerdituerentzat.

Hots, beroak pitzarazten eta iratzartzen du lurreko izaitte guzien bizia, eta edertasunak nasaiki hedatzen, begien eta bihotzen xoratzeko.

Udaberri hastapenaren igurikan gaude, eremu lilluragarriak maite ditugunek zorionez loriatzeko.

Ba, bagoatzi sasoin ederrari buruz, neguko ilhunbe itsusietarik yalirik, denbora argi eta eztiaren alde.

Udaberriak ere oroitarazten gitu haur denboretako yos-tetaz. Sasoin hortan muttikoek xirulak egiten ginituen busuntsa<sup>3</sup> zaharoekin. Horra egiteko moldea. Hautatu behar da lehenik busuntsa gazteetan zaharo mehe eta legun bat, izer-dian delarik. Zaharoan moztan da axala, xirula nahi dugun luzetasunaren izarian edo neurrian, ganibet batekin inguru-katuz makila, eta gero mihia dukeen lekuan ozka bat eginik xirulek duten itxurazkoa. Ordian ganibet giderrarekin yo behar da makila kolpe eztika, axalean, inguru eta eremu guzian, zuretik berexteko. Bulta baten ondoan esku batekin xirik tinki makila, xirula ez den gunetik, eta beste eskuarekin tot axala, eta indarka bihurraraz, krask egin artio, zerek erran nahi baitu axala zuretik berextu dela. Ordian motz zaharoa edo makila, mihia duen alderditik, eta hunen itxura emanik muthurrari, bai eta xirularen xiloak eginik aitzinetik.

Axala errecki atheratzen da oso osoa, zuretik hustua.

Horiek guziak egin ondoan aurkhituko duzie xirula eder bat, nahi duzien luzetasunezkoa, eta soinu ozen eta gar-bikoa, hautatzen balinbaduzie gai eder bat zuhaitzen izerdi denboran.

Barka, ene irakurleak, funtsez-gabeko xehekeria hautatu-  
rik, zuen adimendua eta astia atxikaraziz holako perttolike-  
rictan.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. ari zaigu 32. igurikan gaude  
33. bagoatzi 34. mihia dukeen

① IZAN. Regime Indirect. Indicatif Present

Hura da = il est

- Hura (lui) zait (à moi) = il m'est  
zaigu (à vous) = il vous est  
zait (à lui) = il lui est  
zaigu (à nous) = il nous est  
zaiguz (à vous) = il vous est  
zait (à eux) = il leur est.

• Ni naiz = je suis •

- Ni (moi) nitzaigu (à vous) = je vous suis  
nitzaio (à lui) = je lui suis  
nitzaiguz (à vous) = je vous suis  
nitzaio (à eux) = je leur suis

• Zu zare = vous êtes •

- Zu (vous) zitzaizkit (à moi) = vous m'êtes  
zitzaizkio (à lui) = vous lui êtes  
zitzaizkigu (à nous) = vous nous êtes  
zitzaizkie (à eux) = vous leur êtes

32 EGON = rester

Présent

- Ni naiz (je reste)  
Hi haiz  
Zu zaud  
Hura dago  
Gu gaude  
Zuek zaudetz  
Heek dauke etc

Indicatif

Imparfait

- nindagon (je restais)  
hindagon  
zindagun  
zagon  
gindagun  
zindaguten  
zandun etc